



LANTEGIAK



## Hirtrash. Eraiki zure hiria kartoiarekin



2010eko iraila. [AlhóndigaBilbao](#).

Zure hiria nolakoa izatea gustatuko litzaizuke? Galdera horretatik abiatuta, Hiritrashek berrerabilitako kartoiarekin eskalan egindako ametsezko hiria eraikitzeko jokia proposatzen du. Arkitektura haurrei hurbiltzeko asmoz sortu dute jarduera. Bizi diren eraikitako espazioekiko jakin-mina pizteko eta ingurunearen eraldaketan eta zainketan jarrera aktiboa garatzea ahalbidetzeko ekimena da.

Egin klik [hemen](#) tailerreko irudiak ikusteko.

